

LE CONNEXTEUR

BIZI NAHI DUGUN LEKUAN LAN EGIN



AUSARDIA DA GURE LELOA,

ETA PROPOSATZEN DIZUEGU:

•
ENPRESA ETA LANA BIZITZEKO
MANERA BERRI BAT,
ENPRESABURUEN EGUNEROKOA SINPLIFIKATUZ

•
ISOLAMENDUAREKIN BUKATU
ETA LOTURAK SORTU
ERAGILE EKONOMIKOEN ARTEAN
ABERASTASUNAK ERATZEKO

•
LURRALDEETAKO EKONOMIEN
GARAPENEAN PARTE HARTU,
INIZIATIBAK ETA BERRIKUNTZAK SUSTENGATU,
HAUSNARKETARI ETA ATERABIDEEI ATEAK IREKIZ
BIHARKO ERRONKEI BEGIRA.



06. ORRIA

PAREGABEKO ERAIKINA

LURRALDE BATEN XEDEEN
HEINEKOA

A
U



14. ORRIA

LEKU BAT, PENTSATUA

BESTE MANERA BATEZ
LAN EGITEKO

R



28. ORRIA

BI

LEKU BERRI BAT

GERTAKARIAK ANTOLATZEKO

KI

D

32. ORRIA

IBILBIDEA

ZURE NEURRIRAKO LAGUNTZAK

E

A

33. ORRIA

HEDABIDE BAT

LURRALDEAREN ZERBITZURA



MIARRITZEKO SAN MARTIN AUZOAN KOKATUA DEN ERAIKIN BEREZI BATEAN, 202IEKO IRAILETIK, LE CONNECTEUR-EK EKOSISTEMA BEREZI ETA INSPIRATZAILE BAT ATERPETZEN DU LURRALDEAN BIZITZEKO ETA EKITEKO. INIZIATIBA HAU TOKIKO EKONOMIAREN ALDEKO ERAGILE HISTORIKOA DEN CREDIT AGRICOLE PYRENEES GASCOGNE-K SUSTATU DU.

Hainbat horizontetako pertsonak konektatzeko helburu nagusiarekin, Le Connecteur espazioak lurraldeen aldeko joera aldaketa batean parte hartzen du. Gaur egun, bere azpiegiturei, antolaketa eta zerbitzuei esker, "bizi nahi dugun lekuan lan egitea eta formatzea" ahalbidetzen du. Eskualdean bertan lan egiteko gogoia pizten du, telelana eta coworking-a konbinatzeko, partekatze, munduari irekia egonez.

Le Connecteur-en badira startup-ak, enpresa txiki eta ertainak, talde handiak, freelanceak, langileak eta enpresaburuak. Aniztasun horri esker, ezagutzarako gune aberatsa da eta aktualitate ekonomiko, sozial eta artistikoa markatzen duten gertakariak ahalbidetzen ditu. Izan ere, benetako dinamika bat sortzen da espazio berezi hauetan.

Ausardia da gure leloa, eta horregatik, sorkuntza eta inizatibak sustatzen ditugu, emaitza kolektibo hobea lortzeko.

DI

GILLES SIXOU,
Le Connecteur-eko zuzendari nagusia

“

LE CONNECTEUR-
EN ARDATZA
DA
BETI ERRAZ,
ERABILGARRI
ETA
ESTETIKO EGITEA



Le Connecteur,

PAREGABEKO ERAIKINA

LURRALDE BATEN XEDEEN
HEINEKOA.

CAMBORDE ARKITEKTO ENPRESAK DISEINATURIKO ERAIKIN HAU ART DECO ESTILOAN INSPIRATUA DA ETA LURRALDEKO DINAMIKA EKONOMIKOAREN SINBOLO IZATEKO SORTUA IZAN DA.

“Le Connecteur-en ardatza da beti erraz, erabilgarri eta estetiko egitea”, dio Gilles Sixou, Le Connecteur-eko zuzendari nagusiak. Malgutasuna eta puntako zerbitzuak proposatzen dizkie enpresei, edozein dela ere beren aktibitatearen sektorea.

“Eraikinaren idazketa arkitektralak Art Deco estiloaren zenbait ezaugarri hartu ditu, bere hizkera propioa eta lurraldearekiko lotura sortuz: eraikuntza lerro garbi eta xumeek, fatxadaren konposizio ortogonal eta zorrotzarekin batera marrazten dute Le Connecteur-en berezko silueta. Barnean, murrak estaltzen dituen egur mosaikoak bertako ekoizpenen zehaztasuna eta trebetasuna erakusten ditu. Gardentasuna eta argi naturala protagonista dira eta sorkuntzara eta erronketara eramaten gaituzte.

Hautu horiek kontzeptu berri honen lerro nagusiak definitzen dituzte eta proiektuaren puntu azkarrak argitan ezartzen: inguruarekiko lotura goxo eta orekatua, diseinu bioklimatiko adierazgarria eta bulego eroso eta moldagarriak, eraginkorrak.” Julien Camborde.



ELSA SOUBIELLE AMIELL
Baliapen zuzendaria
Obra fasearen proiektu arduraduna

“
**ERAIKUNTZA
HONEN ERAIKITZE ETA
ANTOLATZE LANAK
ENPRESA ANITZ
MOBILIZATU DITU,
%80 BERTAKOAK ZIREN**



Gardentasunez

Eraikuntzan sartzen denetik, Atrioak sortutako giroan murgiltzen da bisitaria. Ekosistemaren erdigune gisa sortua, erdiko plaza honetan argitasuna da protagonista eta bere bolumen eta giro beroagatik nabarmentzen da.

500 m²-ko argitasuna, hamahiru metro goragoko beirazko sabai baten azpian eta Arudyko harriaren gris mineralaren gainean.

Bizitegi-ingurunean hobeki integratzeko eta eraikinaren masa (8300 m²) hausteko, bolumena osorik beiratu da eta betoi zurizko eguzki-gerizaz eta terrazaz jantzia. Teilatuko maldek eta aluminio gorrizko panelek keinu egiten diete inguruko etxeei eta eraikina auzoan integratzen dute.


500 m²- ko argitasuna,

**hamahiru metro goragoko
beirazko sabai baten
azpian eta Arudyko
harriaren gris mineralaren
gainean.**

Zirkuitu laburrak hobetsi

“Eraikuntza honen eraikitze eta antolatze lanak enpresa anitz mobilizatu ditu, horietarik %80 bertakoak ziren” oroitarazi du Elsa Soubielle Amiell, baliapen zuzendari eta obra fasearen proiektu arduradunak.

Lurraldearekiko lotura hau islatzen da material eta hornitzaileen hautaketan ere.



Eraikin eredugarri eta arduratsua

Sortu zenetik, Le Connecteur energia optimizatzekeo prozesu batean sartua da: gehiago ekoiztu eta gutxiago kontsumitu.

Ezohiko Eraikina

Le Connecteur eraikinak bere energia kontsumoaren parte bat ekoizten du. Ekoizpen hau zelula fotovoltaikoak dituen 610 m²-ko beira leiho baten bidez, teilatuan dituen 712 m²-ko panel fotovoltaikoen bidez eta kogenerazio-galdara baten bidez egiten da.

Guztira, 200 000 kwh ekoizten dugu, hau da, kontsumo osoaren %20.

Gehiegizko energia-kontsumoa murrizteko, argiak, tenperaturak eta eraikinaren aireztatzea Kudeaketa Tekniko Zentralizatutik kontrolatzen dira. Adibidez, elektrizitate kontsumoa optimizatzekeo, leihoek irekiera-kontaktoreak dituzte, irekitzen direlarik, aire girotua eteteko. Argi guztiak ledezkoak dira eta intentsitatea argi naturalaren arabera aldatzen da.

Kudeaketa zentralizatuari esker, gure kontsumoa kudea dezakegu argien eta tenperaturen ordutegiak finkatuz eta ezberdin programatuz lekua okupazioaren arabera (egun/gau/asteburu/gertakarien arabera).

Horrez gain, tokiko eragile gisa, Le Connecteur engaiatzen da bertako enprekin lan egitera, adibidez, obretan zelarik, lanarazitako enpresen %80 bertakoak izan dira. Atrioko eta atariko 1100 m² -ak Arudyko harriz jantziak dira.

Mugikortasun leunak lehenetsi

Egunerokoan, Le Connecteur-eko ibilmoldean garraiobide leunak hobesten ditugu eta 68 bizikleta plaza ditugu eskuragarri, aldagela batekin.

Aparkalekuan, 40 leku ditugu auto elektrikoak kargatzeko eta auto elektriko batzuk eskuragarri jarriko ditugu laster, auto-partekatzeetarako.

Azkenik, egunerokoan engaiatzen gara garapen jasangarriaren aldeko neurriak betetzera: bereizketarako edukiontziak ezarri, zigarreta muturrak biltzeko ontziak...

Hemen, kafea bertan txigortzen dugu eta tokiko hornitzaileek dute lehentasuna.

Duela gutxi, plantan ezarri dugu tokiko barazki biologikoen saski bat jasotzeko aukera.



BENJAMIN BIANCHET,
erabiltzailea 2022ko urtarrilaren 3tik

“

**BULEGOTIK
ITSASOA
IKUSTEN DUT,
EZ DA BATERE
GAIZKI...**

BIDEO-BILKURETAN, HOBE DA KAMERA ITZALTZE APAREKOAK
EZ NARDATZEKO!”



Le Connecteur,

LEKU BAT

BESTE MANERA BATEZ LAN EGITEKO

ENPRESEN BULEGOAK, CO-WORKING ESPAZIOAK, KIROLDEGIA, JATETXEA, SHOWROOM, ROOFTOP... LANERAKO ESPERIENTZIA EZBERDIN BAT PROPOSATZEN DUGU.

Hemen, bizi nahi dugun lekuan lan egitea erabaki dugu, norbere proiektuak lortuz, besteengandik inspiratuz eta munduarekin konektatuz.

Le Connecteur bete-betean sartzen da lan egiteko manera berrietan malgutasuna eta zerbitzuak proposatuz. Argiki, lan egiteko manera berri bat da. Dena pentsatua da trukeak sortzeko, lankidetzak eta saretzea sustatzeko, hiriko tentsioetatik urrun.

Lan espazio bat eskaintzen dugu enpresa, startup, freelantzentzat (bere kontu ari direnak): bulegoak eta co-working espazioak.



Egunerokoan, Le Connecteur-eko langileek espazio ezberdinen animazioan lan egiten dute. Erabiltzaileek euskara iniziazioak, hitzaldiak (NFTei buruz), lehen sorospen saioak, afterwork momentuak... izaten dituzte.



LE CONNECTEUR,
**LANERAKO
LEKU BAT**



33 Bilkura gela,
sorkuntzarako,
gertakarietarako



11 Open space
gure neurrira



**409 Bulego
lanerako**

LE CONNECTEUR,
**TRUKATZE
ETA PARTEKATZE
LEKU BAT**



5 Peñas
(trukatzeko eta
pausatzeko
guneak)



1 Kafetegia



1 Ostatua
atrioaren
bihotzean



**1 Lan
jaketxea**



1 Kiroldegia



**1 Pausa/
isiltasun gela**



1 Animazioak,
hitzaldiak, tailerrak

Inspiratzeko leku bat

Lan espazio paregabeek, batzuk itsasoari edo mendiei begira, lurraldeko aberastasun naturalak dituzte inspirazio-iturri. Bilkura gelek, mundu osoko toki harrigarriei egiten diete erreferentzia: basoak, sumendiak, surferako txokoak...

Pausarako espazio bakoitza Peña bati lotua da (espainolezko hitz horrek zaletasun amankomuna duten pertsonen taldea erran nahi du), bakoitza bere baloreekin, izen batekin, kolore eta armarriekin, kohesioa eta kidetasun sentsazioa sortzeko.


Lan espazio paregabeek

lurraldeko aberastasun naturalak dituzte inspirazio-iturri



Japoniako Hyogoko Unibertsitateko 2019ko ikerketa baten arabera, lan espazioetan landareak ukateak langileen antsietatea apaltzen du. Landareek lasaitzeko eta ongizatea emendatzeko gaitasuna dute: abantaila handia Le Connecteur bezalako espazio batentzat.





3 GALDERA BENJAMIN BIANCHET-I

erabiltzailea 2022ko urtarrilaren 3tik



NOR ZARA?

Merkataritza eskolan formatu nintzen eta digitalaren eta interneten produktu bat naiz, argiki. Badira 15 urte mundu horretan lan egiten dudala, Google bezalako enpresa teknologiko handietan, baina baita startup gisa Leetchi.com / mangopay.com bezalako abenturetan.

<https://www.linkedin.com/in/benjamin-bianchet/>

ordainketetan. Biziki motibagarria da hori parte batean Miarritzetik egin ahal izatea eta bertako eragileekin batera, gainera, conquistador.io eta digital64.fr adibidez.

ZERGATIK EGIN DUZU LE CONNECTEUR ESPAZIOAREN ALDEKO HAUTUA ?

ZER EGITEN DUZU GAUR EGUN?

Duela 2 urte hasi nintzen marketing & growth eta antolakuntza arloko aholkularitza proposatzen teknologia arloko enpresei. Bestalde, inbestitzailea naiz hainbat startupetan eta alicolibri.com impact unibertsoko enpresako administrazio kontseiluan parte hartzen dut.

Baina duela gutxi, aktibitate operazionalago bat hartu dut berriz, MANGOPAY.COM enpresako CMO edo marketing zuzendari gisa. Enpresa horrek ordainketa soluzioak proposatzen ditu marketplace-entzat eta Advent internationalek erosi du, munduko private equity funts handienetako batek. Erronka handia da, 75 milioi euroko ekarpenarekin (M&A-z gain) mundu mailako leaderra izan dadin kategoria horretako

“
Le Connecteur espazio harrigarria da... Ongi sentiarazten gaitu, eraikina harrigarria da, bukatze lanak kalitatezkoak eta zerbitzuak integralak.

Espazio harrigarria da, baita niretzat ere, Kalifornian edo Asian bulego zoragarriak ikusi baditut ere. Ongi sentiarazten gaitu, eraikina harrigarria da, bukatze lanak kalitatezkoak eta zerbitzuak integralak. Gainera, giro biziki ona dugu, ingurune ezberdinetatik etorri den jendearen artean, baina baita tech arloko jendearen artean saretzen ahal gara eta gure problematikak aipatu.

ren artean saretzen ahal gara eta gure problematikak aipatu.

Bulegotik itsasoa ikusten du, ez da batere gaizki eta rooftopeko bista zoragarria da. Bideo-bilkurak egiterakoan, hobe da kamera itzaltzea parekoak ez nardatzeko! Zinez zorionak lan-talde guztiari egindako lanagatik eta eguneroko animazioengatik.

Sinergia-leku bat

Le Connecteur eskaintza globalean, Le Village by CA, startupentzako programa eta INDARRA dotazio funtsa proposatuz, Crédit Agricole Pyrénées Gascogne-k lortu du lurralde baten zerbitzura den triptiko bakarra eta osagarria sortzen.



2014tik, Village by CA proiektuek harremanetan jartzen dituzte startup eta enpresa partaideak berrikuntza eta negozioa azkartzeko, Frantzia eta nazioartean sare bakar bat osatuz.

Helburua: lurraldearekiko baliogarri izatea eta aberastasuna sortzea tokiko eta estatu mailako startupen garapena lagunduz.

Le Village by CA Biarritz-ek hainbat laguntza ematen dizkie enpresariei (bootcamp, akzelerazioa, formakuntza) eta bere abantaila nagusia, biziki pertsonalizatua izatea da. Gehiago jakiteko: www.joinlevillage.com


INDARRA dotazio funtsak, eragile mota guztientzako interes orokorreko egitarau bat proposatzen du (Le Connecteur-en bertan edo kanpoan): hausnarketak, gizarte berrikuntza proiektuak, gertakariak, ekimen pilotuak.

Gure jendartearen etorkizuneko eraldaketetan lurraldeek paper garrantzitsua jokatuko dutela sinisturik, INDARRAk lan egiten du biharko lurraldeak elgarrekin pentsatzeko, garapen forma berriak laguntzeko erronka ezberdinak kontuan hartuz eta norbana-

ko bakoitza aldaketaren aktore izateko. Egitarau hori denoi zuzendua zaigu (herri-tar, gazte, ikasle, ikerlari, zientzialari, artista, elkarte, beste eragileei) eta enpresa mezenas talde batek eta bestelako partaide batzuek bultzatua da.

Indarrak egindako ekimenen artean, azpimarratu dezakegu #Hackeuses, 20 emazte lan-mundu digitalean murgiltzeko proiektua lagundu izana; edo “Communauté Sport et Avenir des Territoires” laborategia abiatu izana.

Eragile horiek paper garrantzitsua jokatzen dute lurraldeen garapenean, izan Euskal Herrian, Gers-en, Biarnoan edota Bigorren.





Trukaketak errazteko, Le Connecteur-eko lan-taldeak ekosistemaren animazioa bere lehentasunetan sartu du:

astero Txoko club (gosari) bat eskainia da, erabiltzaile baten ezagutza egiteko meditazio saioak proposatzen dira urririk, hitzaldiak programatzen dira edota gertakari handiagoak antolatzen, hala nola, euskal kulturaren astea edo ozeanoaren astea bezala.



Konektatzeko leku bat

Le Connecteur munduari eta lurraldeari konektatzeko leku bat da, zeinetan erabiltzaileen eta coworkerren arteko harremanak naturalki sortzen diren. Eta naturalki, ideia berriak sortzen dira.

Horren adibide dugu Galeko, bulegoko diseinuzko altzari jasangarriak garatu dituen enpresa gaztea.



NOLAKOA IZAN DA ZUEN ESPERIENTZIA LE CONNECTEUR-EN?

2021eko ekainean lokal bila ari ginen eta kasualitatez, uztailean Le Connecteur-eko irekitze ekitaldira etorri ginen, gela bat alokatzeko asmoz edo. Orduan, Charlotte eta lan-talde osoa ezagutu genuen eta harrera bikaina egin ziguten, nahiz eta ez ginen gomiten zerrendan!

Eta ez da dena, aste batez "Flex" gisa etorri ondotik, Gilles eta Bérangèrek proposatu ziguten beste urrats bat ematea eta gure hautagaitza aurkeztea "Jeunes Pousses" izateko.

Inpresioa izan dugu zinez familia batean sartu garela, sustengatuak eta lagunduak izan gara.

Ondotik, crowdfunding kanpaina abiatu genuen gure aktibitatea abiatzeko eta kate logistiko osoa plantan ezartzeko beharrezko dirua lortzeko.

Orduan, Elodie-ren talentua eta laguntza izan genuen Branding-a egiterakoan Noho agentziaren bidez eta Clémentine Boscher-ek lagundu zigun maila bisualean.

Ulertu duzuen bezala, Le Connecteur-en izenak dena erran nahi du, Euskal Herrian ezagutzak egiteko puntu garrantzitsua baita eta enpresa bakoitzari bere abentura azkartzeko aukera ematen ahal diona.

ETA GAUR EGUN?

Angelura mugitu behar izan dugu ateliera eraikitzeko.

Hala ere, kontaktua mantendu dugu Le Connecteur-ekin eta Village by CA-n sartu gara.

Gaur egun, 200 erabiltzailek baino gehiagok dituzte Galekoren altzairuak bulegoan.

Hastapena besterik ez da.

“

Baionan sortuak gara biak eta biziki lotuak Euskal Herriari. Lizeoan eta ENIT Tarbeseko Ingeniaritza eskolan elkarrekin ikasi genuen.

Hainbat esperientzia profesional izan ondotik, berriz elkartu ginen ekintzailetzan hasteko.

Abentura 2020an hasi zen, Covidaren lehen olatuan. Galeko sortu genuen, bulegoetako altzari atseginak eta etxean sentiarazten gaituztenak saltzen dituen startup-a.

Horretarako, tokiko produktua erabiltzea zen aukera onena. Orduan, diseinua Angelun egiten dugu eta fabrikazioa Maulen (Zuberoan).

Hurbileko partaideekin baizik ez dugu lan egiten, frantsesak eta gure balore amankomunak dituztenak.

Gure desmartzaren ardatza erabiltzailearen beharra da eta garrantzia handia ematen diogu langileak bulegoan etxean bezain ongi sentitzeari.”



LE CONNECTEUR-EK IZAN NAHI LUKE PASAIA LEKU BAT, ABIAPUNTU BAT, NON EKINTZARAKO GOGOAK, SORKUNTZAK, EZAGUTZEK, PROIEKTUAK PIZTUKO DITUZTEN.



Horregatik, hain zuzen ere, sortzen ditu partaidetzak sineste berak dituzten lurraldeko beste eragileekin. Besteak beste, Baionako merkataritza ganbara, ESTIA, FrenchTech Pays Basque edo "Du Pays Basque aux Grandes Ecoles" elkarteak, gure lurraldea mugiarazten dutenak eta bere ospean eragin nahi dutenak.

MAIDER AROSTEGUY

Miarritzeko auzapeza



“

Itsas bazterreko paisaia zoragarriak, ondare aberats eta anizkuna, jarduera ekonomiko dinamiko eta askotarikoak. Horra Miarritzeren ezaugarri batzuk, herritarrek eta baita bisitariek ere gustuko dituztenak.

Munduan zehar, ezagunena Palais hotela bada ere, ezin dugu gure hiria horretara soilik mugatu.

Miarritze, sorkuntza eta ausardia ere bada. Horren adibide garbia da Le Connecteur espazioaren sorrera.

2017tik, hau da, osasun pandemia aitzin, enpresetan

lanarekiko dugun harremana birpentsatzeko beharra agertu aitzin, espazio hau irudikatu zen enpresa ingurune pribilegiatu batean bizitzeko manera berrien beharretatik abiatuta.

French tech izpiritu hori INDARRA Fundazioan ageri da batez ere, lurraldeetako garapen forma berrien alde ari baita lanean.

Hiriko zentro geografikoan kokatuz, San Martin auzoan, Le Connecteur-ek hastapenetik izan du tokiko ekonomia dinamizatzeko xedea.

Arrakasta ezin ukatuzkoa da.

Napoleon Bonapartek erran zuen
"ausardiarekin, ekintzailtza oro
possible da".

Le Connecteur-eko sortzaile
eta finantzatzaileek
arrazoi eman diote.

Dagoeneko, Miarritzeko enpresa handien zirkuluan sartu da Le Connecteur, Palais hotela, Malandain Ballet Biarritz eta Aguilera klinikarekin batera, besteak beste.

Crédit Agricole Pyrénées Gascogne-k abiatu proiektu pribatu hau bakarra da estatu mailan eta zerbitzu publikotik biziki hurbil dela errango nuke.

Miarritarrak harro dira hiriaren izaerarekin bat egiten duen horrelako egitura moderno eta berritzaile baten instalatzeaz.

03

“
LEKU HIBRIDO HAU EZIN
HOBEA DA EKITALDI
TXIKI ETA HANDIETARAKO.



Le Connecteur,

LEKU BERRI BAT GERTAKARIAK ANTOLATZEKO

MIARRITZE HELMUGA TURISTIKO GARRANTZITSUA DA NAZIOARTEAN, BEREZIKI NEGOZIO TURISMOAN. DINAMIKA HORI KONTUAN IZANDA, LE CONNECTEUR-EK PREMIUM ESKAINTZA BAT SORTU DU, GERTAKARIGINTZARI DEDIKATUA: SEMINARIOAK, AFARIAK, COCKTAIL-AK, HITZALDIAK, PROIEKZIOAK, WORKSHOP-AK, ERAKUSKETAK, GRABAKETAK, SHOOTING-AK... LEKU HIBRIDO HAU EZIN HOBEA DA EKITALDI TXIKI ETA HANDIETARAKO.

Horretarako, antolakuntza arloan berezitua den agentzia batek diseinatzen du neurria gertakari bakoitza. Cateringa proposatzeaz haratago, lan-taldea ekitaldiaren osotasunaz arduratzen da.

Le Connecteur, lurraldeko eragile bezala, elkarlanean aritzen da arlo guzietako agentziekin eta Biarritz Tourisme, hiriko garapen ekonomikoaren eragile historikoarekin.

ATRIOA, ARGIZ JANTZIRIKO LEKU PAREGABEA

Espazio harrigarria, dotorea, argitsua, 500 m2 baino gehiagoko berina teilatu batek aterpetua. Edozein motatako gertakariak antolatzeko egokia: erakusketak, workshop, produktuen abiatzea, grabaketa, shooting...



Atrioaren luzapenean,
BERINA AZPIKO FOROAK
kanpoko gertakariak antolatzeko aukera ematen du.



GOI MAILAKO AUDITORIOA

300 tokitik gorako auditorioa, ikus-entzunezko galde guzietan erantzun ahal izateko diseinatu.

Audio eta bideo ekipamenduak eta eskaintzen diren prestazioak puntakoak eta bakarrenetarikoa dira lurraldean.



ANFITEATRO INTERAKTIBOA

160 m2-ko eta 90 tokiko gune gehigarria. Bere konfigurazio intimistagoak elkarrizketak eta trukaketak errazten ditu. Espazio egokia da prentsaurrekoak edo proiektuen aurkezpenak egiteko.

BILKURA GELAK 3 ESTAIETAN

Irudikatzeko, sortzeko, elkartzea eta mintzatzeko beharrezkoa da. Horretarako, hainbat formatu pentsatu ditugu Le Connecteur-en.

Bilkura gela klasikoa edo "premium", formakuntza gela, hitzaldietarako gela edo sorkuntza gela. Proiektu bakoitzak bere giroa. 2-24 toki artean, eta gehiago ere izan daitezke, Le Connecteur eskaeretara egokitzen baita.



PAREGABEKO ROOFTOP-A

200 m2-ko espazio bat, 360°-ko bista Miarrizera, Pirineotara, itsasora... Rooftop-a toki egokia da cocktail edo afterwork momentuak antolatzeko.



ARGAZKI/BIDEO ESTUDIOA

Le Connecteur espazioan, argazkigintza (shootingak pertsonekin, produktuekin edo gertakarietan) eta bideogintza (Steadicam mugimenduan grabatzeko, kanpoko erreportaiak egiteko kuxak, plato bat grabatzeko kamerak, mikrofonoak, kaskoak, pantailak...) arloetan tresna eta jakintza ugari ditugu.

Goi mailako gama honi gehitu behar zaio estudioan kamera anitzekin grabatzeko ekoizpen profesionala.



SHOWROOM

140 m2-ko aretoa eskaeren arabera moldatzen dugu eta nahi dugun itxura ematen diogu.

Toki egokia da produktu teknikoak edo eskulanak aurkezteko, kultur obrak erakusteko edo formakuntza kolektibo bat egiteko.

INPAKTUZKO GERTAKARIAK

Le Connecteur engaiatua da, bai lurraldean eta baita bizi den garaian ere. Planetarentzat eta jendartearentzat inpaktu positiboa duten gertakariak abiatu eta aterpetzen ditu: hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak... hainbat gairi buruz: ozeanoaren babesa, zibersegurtasuna, bularreko minbiziaren kontrako borroka, etab.

Gertakari horietan, askotariko pertsonen parte hartzen dute, puntu amankomun batekin: momentuko ingurumen eta jendarte erronkei erantzun nahi izatea. Bestalde, biharko erronkei erantzuteko lanean ari direnak ezagutarazi nahi ditugu.



04

parcours

LE CONNECTEUR

ibilbidea

NEURRIRA EGINIKO LAGUNTZA ESKAITZA

IBILBIDEA SORTU DUGU, NEURRIRA EGINIKO LAGUNTZA PROGRAMA BAT, ENPRESARIEI LAGUNTZEKO MOMENTUKO BILAKAERA GARRANTZITSUAK AURREIKUSTEN, ESTRATEGIAK INSPIRATZEN, LERROAK MUGITZEN ETENGABE ALDATZEN ARI DEN MUNDU HONETAN.

Learn Assembly, enplegu osasuntsu eta jasangarri baten alde ikaspen esperientziak sortzen dituen Frantziako learning konpainiaren laguntzarekin, Le Connecteur-ek barometro bat sortu du enpresaburuen kezkak aztertzeko. Hirurogei enpresari inguruk ebaluatu dute beren burua 3 gairen inguruan: zibersegurtasuna, harremanetarako gaitasunak eta enpresek jendartean duten ardura. Emaitzetan agertu zaigu enpresari anitzek jadanik hainbat ekintza jartzen dituztela plantan, baina ez dituztela baitezpada identifikatzen eta baloratzen. Baina, bestalde, barometroak erakutsi dizkigu bakoitzaren aitzinamendu-ardatzak eta isolamendutik ateratzeko beharrak, hainbat gaietan gaitasunak hobetzeko beharrak.

Le Connecteur-ek, arlo bakoitzeko adituekin lan egin du orduan gai garrantzitsuenak lantzeko: jarduera babestu zibermehatxuen aitzinean, garapena manera arduratsu batean eraman, enplegatzean, management-ean eta negoziazioetan harremanetarako gaitasunak hobetu.



Ibilbidea, tresna kutxa bat ere bada

enpresariari egunerokoa errazteko

= finantzamendu publikoak errazki atzeman, jarduera hobetu tresna digitalei esker, idazketa juridikoak menperatu "lega designer" teknikekin

Ondoko hilabeteetan beste gai batzuk landuko dira.

05


Le Connecteur, HEDABIDE BAT

LURRALDEAREN ZERBITZURA

MUTAZIO BETEAN DEN MUNDU HONETAN, EKONOMIA METROPOLI HANDIETATIK KANPO GARATZEN DELARIK, LURRALDEEK BEREN GAITASUNAK ETA AUSARDIA AGERTZEN DITUZTELARIK, BERRASMATZEN DIRELARIK, HEDABIDE ESKAITZA EGOKITU BATEN BEHARRA AGERTU ZAIGU.

ALDIZKARIA

Hiruhilero argitaratzen den Audace aldizkariak enplegatzen direnei edo dutenei eta balorea sortzen dutenei ematen die hitza. Aktualitatea, erreportaiak, ekintzaileen potretak, lifestyle artikulak... Audacen ardatza, lurraldeetako eragileak.



PODCAST ORIGINALA

Le Connecteur-ek podcast serie bat sortu du: "Ça ne reste pas entre nous", enpresaburu, ekintzaile edo pertsona ezagun bat elkar-rizketatzen da beste ikuspegi batetik eza-gutzeko.

Arantxa Biscay-ren mikrofonoan, enpresa munduko jendea jokoan sartzen da:

Lehen gomiten artean, Guillaume de Blic, Lacoste Europako zuzendari nagusia, Manuel Mallen, Courbet etxeko sortzaileetako bat, Bruno Witvoet, Unilever Frantzia eta Afrikako presidente ohia eta Paul Carite, Crédit Agricole Pyrénées Gascogne-ko zuzendari nagusia.

BIHARKO LAN MOLDEEI ETA BUSINESS GERTAKA-RIGINTZARI BURUZKO BLOGAK

osatzen du garatzen ari den hedabide eskaintza.

Euskal Herria ekintzailetza-lurralde bat da, non berrikuntzaren eta enpresa-sorkuntzaren dinamismoa frogatua den.

Lurraldearen bihotzean kokatua da Le Connecteur eta bizileku hibrido bat da, bertan bizi eta ekiteko irudikaturiko ekosistema oso bat.

Le Connecteur startupentzako abiapuntu egokia da – Village by CA-ren sostenguekin – eta lurraldeen garapen molde berrietarako hausnarketa gunea da – Indarra dotazio funtsarekin –, bestalde, lurraldeko partaideak batzen ditu (enpresak, botere publikoak, laguntza egiturak, formakuntza eta ikerketa, finantzamendu eta hedabideetako eragileak) eta enpresa-ekosistemako katalizatzaile gisa garatzen da.

Le Connecteur

enpresa- ekosistemako katalizatzaile gisa

garatzen da.



**HEMEN,
LE CONNECTEUR-EN,
BESTE MANERA BATEZ
EGITEN DUGU LAN,
LURRALDEARENTZAKO
ETORKIZUN BATEN ALDE,
BIZI NAHI DUGUN LEKUAN
LAN EGINEZ.**




**NORBERE
PROIEKTUAK
BESTEENGAN INSPIRATUZ
LORTZEN DIRA
ETA BIHARKO MUNDUAREKIN
KONEKTATUZ,**

**MUNDU ARDURATSUAGO
BATEKIN.**



Le Connecteur, ZENBAKITAN



8300 m²


311

toki auditorioan



2070

altzairu



2125

landare

31,68 m²,




auditorioko
pantailaren neurria

183



tona
Arudy-ko
harri



4000 m²

coworking
espazioa



5

min
Miarritzeko geltokitik

5

min
Miarritzeko aireportutik



4H30

trenez Parisetik



Bista
mendira



Bista
itsasora




30

bilkura gela

45 AV. DU PRÉSIDENT KENNEDY

64200 BIARRITZ



PHARE
DE BIARRITZ



GRANDE
PLAGE



ROCHER DE LA VIERGE

VILLA BELZA

BIARRITZ
CENTRE



PLAGE
DE LA CÔTE
DES BASQUES



PLAGE
DE LA MILADY



LAC
MARION

LAC
MOURISCOT

GARE SNCF
18, Allée du Moura




AÉROPORT DE BIARRITZ
PAYS BASQUE
7 Esp. de l'Europe,

VERS BIDART

D810

AUTOROUTE A64



LE CONNECTEUR

BIZI NAHI DUGUN LEKUAN LAN EGIN

PRENTSA KONTAKTUA

presse@leconnecteur-biarritz.fr

Aude Lagrabette **EMAIL** aude.lagrabette@leconnecteur-biarritz.fr

TELEPHONE 06 63 02 95 17